

EIBAR'EN

Antxiñako adiskide maitea dodan Ajuria'tar Jon'ek egun baten urrutizkiñez deitu eustan. Dei au arrigarria izan jatan, aspaldiko urteetan Jon'egaz berba egiteko aukerarik izan ez dodalako eta Eibar'en bertan be noizean bein egon-bearra izan dogu baiña ez dogu izan alkar agurtzeko zori onik.

Baiña deia artu neban eta pozik artu be, adiskideen deiak artzen diran pozagaz.

Eta zer gura ete eban Jon nire adiskideak?

Eibar'en izateko zan batzar batera ni joatea eta nik an itzaldi labor bat eta luzea naiz laborra izan zeitekean alkar-izketa bat izatea. Eta batzarra baiño geitxuago be ba-zan, aspaldion euskaldunak egiten doguzanetariko apari bat, euskerea indartzeko gertatuak diran aparietariko bat. Apari onein eratzaile Aurrekoetxea'tar Txomin Lege-Biltzarkidea (parlamentarioa) eta Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan euskerearen sailleko arduraduna da. Aspaldiko amabost urtean, azkenengo bostak alde batera itzita, lankide izan gara Zeanuri'n dan Lanbide Ikastegian genduan irakasle talde gozatsuren barruan.

Apari orretan erabiliko zan gaia, Jon'ek esan eustanez, "Euskalkien eragiña euskera estandarizatu baten bidean" izango zan. An izango ziran batuaren bidetik doazan HABE'ko Txabarri eta Eibar'egaz zer-ikusi berezia dauan Amatiño.

Euskal-Telebista be maitekiro urreratu jakun eta apari orren barria naikoa zeatz emon be bai, naizta guk esandako gauza guztiak ezin bialdu izan entzule ikusleai, erpin zorrotzaren bidez. Esaterako Bizkaitarrak arlo onetan daukaguzan euren aurkako kezka ez ziran agertu, zalan-tza barik astirik izan ez zalako.

Egin ziran berbaldi labor batzuk apal-aurrean. Ezin egin berbaldi luzerik, maia gertu egoala eta jateko gogoa bizi-bizi.

Iru zati izan ebazan nire berbalditxuak: Lenengoan euskalkiak bere lekuan jarri nai izan nebazan, orretarako

Eibar bera eredu lez artuta: Eibar'en izan diran ekiñaldiak aurka izan arren, ez da galdu bizkaiera. Arrate Irratiak onetan egiten dauan lana be gogoratu neban. Bigarren zatian euskalkien eragiña baturako bidean aztertu neban, euskaldi batzuk izan dabena eta beste batzuk, esaterako bizkaierak euki bearko leukela, benetako batua bearrezko izan ezker. Eta irugarren zatian batua bera aztertu neban labor.

Gero Txabarri jaunak egin eban bere ekitaldia: Batua- ren bear-izana, batua egitean izan diran eta gaur zuzendu gura diran okerrak... bizkaitarrak baiño lenago euskaldunak garala eta erri batek izkuntza bat izan bear dauala esan eban (azkeneko au nik Lebrija'rena dan gaztelarazko lenengo gramatikan aurkitu neban antxiña eta ba-dakigu gaztelereak beste euskalkiak zapaltzen izan dauan indarra).

Bertsolari bi be izan genduzan gure mai aretan. Azpilla-ga ta Dima'ko Faustino Etxebarria. Ederrak izan ziran euren ekiñaldiak.

Gero, apal-ostean, eztabaida naiko luzea ta bizia sortu zan eta aztertu zan gairik sakonena, gaurko gazteak euskera egin dagien zer egin leiken.

Eta geiago barik, sasoiz eta giro egokia galdu barik amaitu zan Eibar'eko apari gogoangarria.

Berebilla artu eta Bermeo'ranta nentorrela olako burutasunak etorri jatazan: Batuak egindako okerkeriak ikusten dabez, bizkaiera zapalduta dagoala eta batua egikeran ez dala kontuan artu ez dabe ukatzen, eta, orduan, zergaitik ez da aldatzen giroa? Gaurko egoerak jarraitzen dauan artean Bizkaia'n euskereak atzera egingo dau, gorrotoa artuko jako... eta gero berandu izango da gorputz eder onetan izango diran zauriak osatzeko. Eta, zori txarrez, giro ori aldatzea gauza gaitxa izango da, naizta gu gertu egon bear dan beste denporan ekin eta ekin jarraitzeko.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK